

Xabier Oleaga

KAZETARIA

Euskal Herria Bai, nahiago



nartu beharra daukat. Joseba Egibarrek gaia jan egin dit. Banuen bihozkada 2008ko martxoko hauteskundeak ez zirela izango arruntak, nonbaitetik iritsiko zirela proposamen bereziak. Ni neu ere, neure apaltasunetik noski, zirian aritzeko asmotan nengibilen, txoko hau bera aprobetxatuaz.

Gaur amaitu zait idatzitxoa aurkezteko epea eta hara non buruzagi jeltzaleak aurea hartu didan Vianako Nafarroa Oinez-en proposamen *pertsonala* eginez. Hala esan du berak behintzat, proposamen pertsonala dela.

Politikan aspaldi bekatutzat hartuta dago sukaldean egosi gabeko proposamenak haizeratzea. Susmopean jartzen dira aipamenaren une berean. Lerro hauek argitara ateratzen direnerako asko esanda egongo da jada honetaz, baina Aralar izan da Egibarren hitzak txalotzen lehena. Horrek ere mereziko du agian irakurketaren bat.

Abertzale arrunt eta apal besterik ez garenok behin gustuko proposamena entzun eta ez gara bada hura zalantzaren amaraunean itotzen hasiko, ezta? Ni neu zalantzaren abantaila behintzat ematera nator, proposamena bera menturaz egia bihurtuko balitz ere ezustean behintzat harrapa ez nazan.

Abertzale askoren gogoan dago aspalditik noiz demontre eraman ahal izango den Madrilkoak bezalako ganbaretara abertzaleen arteko *transbertsalitatean* biltzen diren erakundeen



DANI BLANCO

mezu nazionala. Egibarrek ongi daki hori eta aukera profitatu du, Ibarretxeren letra jarriaz abertzaleen amets musikalaria.

Hitz egin dezagun bada aukera horretaz. Eta hasteko, ikusmoldeak laburbildu aldera eredu bat erreferentziatuz hartu beharko balitz, hona nire preferentzia, izan dadila Iparraldeko *Euskal Herria Bai*. Hemen alderdi abertzale guztiek izan zuten partaide izateko aukera, eta bakarrik hala nahi izan ez zutenak geratu ziren kanpoan. Nafarroako ereduaz ezin daiteke

gauza bera esan. Hemen dena prestatu zen indar jakin bat kanpoan gera zedin.

Gero edukiak datoz. Ibarretxeren proposamena ardatz hartzeak egoerarik onenean jartzen du EAJ eta lehendakariaren lidergo pertsonala. Baina eredu horrek gabezia nabarmena du integratzaile azaltzeko. Eta hori baino gehiago, lehendakariaren proposamenak ausardia galanta dario gatazkaren zezenari adarretik eusteko, baina gakoak hobeto azaleratuta zeuden Loiolako mahaian. Nik nahiago bien arteko uztarduraz osatutako gidioia.

Ez dakit Egibarren proposamena kairen batera iritsiko den, baina betoz honen moduko proposamenak eta has dadila aukera bateratuen ereduez hitz egiten, Iparraldean eta Nafarroan bezala Euskal Herrietako beste lurralde hauetan ere. Independentziaren aldeko estrategiak, eta ordua da honetaz argi hitz egiten hastea, ezinbestean hala eskatzen du. ■

« Ibarretxeren proposamenak ausardia galanta dario gatazkaren zezenari adarretik eusteko, baina gakoak hobeto azaleratuta zeuden Loiolako mahaian. Nik nahiago bien arteko uztarduraz osatutako gidioia »

TXANDAN

Edu Zelaieta



Ismael Serranok irailaren 11n atera duen diskoari esker jakin dut duela 30 urteko egitasmoaren berri. NASAk espaziorantz abiarazitako *Voyager* zundez ari naiz. Proiektu hura diseinatu zutenen arabera, 74.500 urte igaroko dira –orain 30 gutxiago– gure eguzki-sistematik hurbilen dagoen izarraren parera ailegatzeko.

Zundetan txertatutako urrezko disko batean bilduta, Lurreko bizia eta kultura islatzen omen dituzten soinu-irudiak bidaiatzen ari dira *ad infinitum*. Helburua? Bada, kosmosean barrena gure berri ematea. Dena den, edukiak piztu dit jakin-mina; hau da, nork eta zeren arabera

Antologia unibertsala

erabaki zuen guztion ordezkari-tza planetarioa: naturarekin lotutako 115 irudi, 55 mintzai-

ratan egindako agurrak, garai ezberdinetako musika hautaketa bat... eta, badaezpada, –orduko– AEBetako presidente Carterren eta –orduko– NBEko presidente Waldheimen mezuak.

Ez nuen uste neure burua halako saltsa batean ikusiko nuenik, baina ez didazue ukatuko apokalipsiak ere baduela bere xarma, ezta? Dagoeneko irudikatzen hasia naiz planetaren hondar egunak, mundu mailako erreferendumak: Beethoven ala Mozart; Moliere ala Cervantes –Shakespearek ziurtatua baitu tokia–; Imaz ala Egibar? ■